

**Hezkuntza publikoan
lan baldintzak hobetu.**
Hemen eta orain erabakita.

Prentsa oharra:
Urtarrilak 22ko greba balorazioa

EAEko hezkuntza publikoko irakasleen grebak %75etik gorako jarraipena izan du

STEILAS, LAB, ELA eta CCOO sindikatuok deitutako grebak jarraipen zabala izan du. EAEko Hezkuntza Sailaren 27.000 irakasle zeuden gaurko grebara deituak.

Hezkuntza sailak greba desitxuratzeko saiakera egin badu ere, sindikatuok batutako datuen arabera, grebak jarraipen zabala izan du, izan ere, deitutako **%75ak baino gehiagok babestu du**, Hala ere, beste behin ere, salatzea da Eusko Jaurlaritzak ezarritako gehiegizko zerbitzu minimoak direla eta milaka langileri greba eskubidea ukatu zaiela eta ondorioz, greba bera baldintzatua egon dela.

Aipagarriak dira greba babestu duten irakasle kopuru handia dela eta, irakas jardura ia osotasunean geldirik izan duten ondorengo ikastetxeak:

- **Gasteizen:** Salburua HLHH (%90); Mariturri (%88); Lopez de Guereñu (%82) eta Zabalgana BHI (%80); Toki Eder (%74,6)
- **Donostian:** Amara Berri Urbietako eraikina (%100); Amassorrain (%87); Aitor Ikastola (%87); Lauaizeta BHI (%84) eta Intxaurren ikastola (%80)
- **Bilbon:** Atxuriko eskola (%100); Txurdinaga HHLH (%100) eta Bilboko Kontxa Eskola (%80)
- **Hiriburuez gain** Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako herrietako ikastetxeen erantzuna eredugarria izaten ari da.

Grebaren arrakastaren adibide garbia da Bilbon **“Lan baldintzak hobetu, hemen eta orain erabakita!”** lelopean deitutako manifestazioan milaka langile elkartu direla.

Hortaz, milaka eta milaka irakaslek salatu dute gaur EAEn Hezkuntza Sail berria dugun arren, azken urteetako jokamolde berbera dugula mahai gainean: Hezkuntzako langileon lan-baldintzak okertzen ari dira, Hezkuntza Sailak erabakiak aldebakarrez hartzen dituelako eta negoziazioak eduki esanguratsu gabe etengabe luzatzen dituztelako.

Hezkuntza sailari eduki gabeko bilerak deitzeari uzteko eta greba hauetako aldarrikapenei erantzun dieten proposamenak mahai gaineratzeko eskatu diote.


Gaurko egunari jarraipena emanez, bihar ere greba eguna dugu EAEko hezkuntza publikoko irakasleok, eta manifestazioak egingo ditugu EAEko hiru hiriburuetan, goizeko 11:30ean abiatuta. Bilbon delegaritza aurretik abiatuko da, Donostin Bulebarretik eta Gasteizen Bilbo plazatik.

LAB


steilas

ELA
EUSKAL SINDIKATUA


irakaskuntza



Mejora de las condiciones laborales en la educación pública.
Decididas aquí y ahora.

Nota de prensa:
Valoración de la huelga del 22 de enero

La huelga del profesorado de la enseñanza pública de la CAV registra un seguimiento de más del 75%

La huelga convocada por STEILAS, LAB, ELA y CCOO ha tenido un amplio seguimiento. 27.000 profesores y profesoras del Departamento de Educación de la CAPV estaban convocadas a la huelga de hoy.

A pesar del intento del Departamento de Educación de distorsionar la huelga, según los datos recogidos por los sindicatos, la huelga ha tenido un amplio seguimiento, ya que ha sido **secundada por más del 75% de las personas convocadas**, aunque, una vez más, hay que denunciar que se trata de servicios mínimos abusivos establecidos por el Gobierno Vasco y que se ha denegado el derecho de huelga a miles de trabajadores y trabajadoras, por lo que la huelga ha estado condicionada.

Son destacables los siguientes centros escolares que, debido al gran número de profesores que han apoyado la huelga, han tenido paralizada su actividad docente casi en su totalidad:

- **Gasteiz:** Salburua HLHH (90%); Mariturri (88%); Lopez de Guereñu (82%) y Zabalzana BHI (80%); Toki Eder (74,6%);
- **Donostia:** Amara Berri Urbietta (100%); Amassorrain (87%); Aitor Ikastola (87%); Lauaizeta BHI (84%) e Intxaurren ikastola (80%)
- **Bilbo:** Atxuriko eskola (100%); Txurdinaga HHLH (100%) y Sánchez Marcos (80%)
- **Además de las capitales**, la respuesta en los centros escolares de los pueblos de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa está siendo ejemplar.

Un claro ejemplo del éxito de la huelga es que en la manifestación convocada en Bilbao bajo el lema **"Lan baldintzak hobetu, hemen eta orain erabakita!"** han participado miles de trabajadores y trabajadoras.

Por lo tanto, miles y miles de profesores y profesoras han denunciado que, a pesar de que hoy tenemos un nuevo Departamento de Educación en la CAV, tenemos sobre la mesa la misma forma de actuar de los últimos años: las condiciones laborales de los trabajadores y trabajadoras de Educación están empeorando, ya que el Departamento de Educación toma decisiones unilateralmente y las negociaciones se prolongan sin contenido significativo.

Piden al departamento de Educación que deje de convocar reuniones sin contenido y que aporte propuestas que respondan a las reivindicaciones de estas huelgas.

Dando continuidad a la jornada de hoy, mañana también convocan una jornada de huelga del profesorado de educación pública de la CAPV, y realizarán manifestaciones en las tres capitales vascas, partiendo a las 11:30 de la mañana. En Bilbao desde la sede del Gobierno Vasco, en Donostia por el Boulevard y en Vitoria por la Plaza Bilbao.

